

Getxo >MEETING<

Urtarrilak 20

Zure 2022rako asmoak: Zure enpresaren helburuak zorrotzu!

Urtea planifikatzera ausartzen zara? Horri ekin nahi diozu baina ez duzu unerik aurkitu? Zure helburuetan pentsatu. Amestu itzazu. Forma eman iezaezu.

Otsailak 3

Zure helburuak 2022ko ekintza-plan bihurtu

Urtero komeni da helburu komertzialak ezartzea eta zure plan estrategikoarekin koherentea den estrategia bat diseinatzea (plana izan zein ez). Banaka egingo dugu pribatutasuna mantentzeko, eta saioan ematen den lan-prozesuari buruzko irakaspenak partekatuko ditugu, ahalik ondoen egiteko lagungarri izango zaizkigulakoan.

Otsailak 17

Beste enpresa batzuekin lan egin nahi duzu baina ez dakizu nondik hasi? Getxotik hasi

Saio desberdina izango da: Getxo Itsas Hub-en egingo da, eta helburu nagusia parte-hartzaile guztiek Getxoko etorkizuneko enpresek udalerrian nola hartuko duten parte irudikatzea izango da. Lagungarri izango zaigu espazio komun interesgarriak identifikatzeko eta handik abiatuta balizko lankidetzak zehazteko. Udalerriak dauzkan erronketatik abiatuko gara.

Martxoak 3

Zure testuak hobetu, zure komunikazioa hobetu

Webgunean, LinkedIn-en, liburuxka batean eta abarretan dituzu testuak; pentsatu duzu ea jendeak ulertzen dituen? *Feedback*-a jasotzeko eta zure testuak aldatzeko saioa, testuak ulergarriagoak izan daitezen.

Martxoak 17

Gastronomia eta kultura: ideia berriak sortu

Gastronomiaren, artearen eta kulturaren esparruetako pertsonen arteko ideien trukea; esparru horiekin zerikusirik ez duten pertsonak ere arituko dira, ziur puntu komun batzuk aurkituko ditugulako. Helburua ideiak sortzea eta plangintzetan berrikuntzak sartzea da; horretarako, itxuraz zerikusirik ez duten esparruak uztartuko ditugu.

Martxoak 31

Kaixo, nire zerbitzuen dosierra aurkeztera natorkizu

Errepaso bat emango diegu lehenengo bilera komertzial bateko ohiko akatsei. Ikusiko duzu abiapuntua aldatu daitekeela, bai eta pentsatze hutsak eragiten dizun lotsa arindu ere.

Apirilak 28

Enpresen erradiografia

Hainbat sektoretako hiru enpresen profilak berrikusiko ditugu, zertan aritzen diren, nola egiten duten, eta horretatik zer ikasi dezakegun ikusteko. Zurea ez den esparruan aritzen badira ere.

Maiatzak 12

Netwalking: blokeotik irteteko ideia berriak sortzea

Networking normala egin ordez, topaketako bi orduak Getxoko Kirol Portuan dagoen ItsasHub egoitzara arte oinez joateko erabiliko ditugu. Egin nahi dugun zerbaiti buruz hiru hitz egiteko. ItsasHub-en daudenak parte hartzera eta taldean ibiltzera gonbidatuko ditugu.

Maiatzak 26

Nik hamar urte baino gehiago daramatzat...

Hamar urte baino gehiagoko jarduna duten enpresa nahiz erakundeak gonbidatuko ditugu, beren irakaspenak azaldu ditzaten. Zertaz jabetu naiz? Zer lortu dut? Gainerakoek zure galderak erantzun ahalko dituzte.

Ekainak 9

Kasuak aztertzea

Norberak bere kasu zehatza aurkeztuko du, landu behar duen zerbait. Gainerakoek aholkatuko diote. Hitz egiteko kasu zehatz bat ez baldin baduzu, ez da ezer gertatzen. Ekarpenak egingo dituzu eta ikasiko duzu.

Ekainak 23

Udarako produktuak edo zerbitzuak diseinatzea

Pertsona batzuentzako, uda lanerako sasoi probetxugarria izan ohi da, eta beste batzuentzako, aldiz, batere ez. Zeure kasua edozein izanda ere, saio honek balio izango dizu perspektiba hartzeko eta kalitatezko denbora eskaintzeko arrazionala den hori intuizioarekin batzeko: zure enpresaren hainbat alderditan azken hiruhilekoari bultzada eman ahal izateko erabakiak hartzen lagunduko dizu.